



ANTZUOLA KIROL ELKARTEKO FUTBOL TALDEEN PARTIDUETARAKO PROTOKOLO ETA JARRAIBIDEAK

Eusko Jaurlaritzak zein Euskadiko eta Gipuzkoako Futbol Federazioak igorritako eta indarrean dauden araudiak oinarri izanik, Antzuola Kiro Elkarteak Eztalan futbol partiduak jokatzeko ondoren izendatzen diren protokolo eta jarraibideak zehaztu ditu pertsonen artean COVID-19 birusaren zabalkuntza ekiditea helburu eta ardura izanik

SARRERA

- Eztalara bertaratuko diren guztiek AKE-ko Zuzendaritza Batzordeko kideek emandako aholku eta jarraibideak bete beharko dituzte.
- Talde bakoitza, gehienez, 22 lagunez osatuta egongo da, talde teknikoa barne. Talde bakoitzak bertaratuko direnen pertsona guztien izen-abizenen eta arduradun baten telefono kontaktu baten datuak bermatu beharko dizkio AKE-ko zuzendaritza taldeari.
- Eztalara ekipoak neurketa hasi baino 45 minutu lehenago sartu ahal izango dira. AKEko arduradun batek baimenduko du Eztalarako sarrera. Baimen hori izan arte, taldekideek zelaiko atetik kanpo zain egon beharko dute, pertsonen arteko distantziak zainduz eta beste taldeko kideekin elkartu gabe. Temperatura ere hartuko zaie eta 37°C baino gehiago badu ez da Eztalara sartuko.
- Eztalarako sarreran gel hidroalkoholikoa izango da eskura. Bertaratzen den orok eskuak berorrek in garbitu beharko ditu eta temperatura hartuko zaie, 37°C baino gehiago badu ez da Eztalara sartuko.
- Eztalara datozen taldeetako kideek bere joko-ekipamendua jantzita ekarri beharko dute. Motxila eta material pertsonala aldagelan utziko dira.
- Aldagelara sartu ahal izango da bakarrik materiala gordetzeko eta aldatzeko. **EZIN IZANGO DA ERABILI ALDAGELA DUTXATZEKO.**
- Aldagela erabili eta gero taldeko arduradun edo entrenatzailea arduratuko da aldagela desinfektatzen.

MUSUKOAREN ERABILERA

- Eztalara musukoa jantzita sartu beharko da. Berau ez da kenduko beroketak edota esfortzu fisikoa egiten hasi arte.

- Talde teknikoetako kideek uneoro izan beharko dute musukoa jarrita.
- Partida aurreko beroketa edota neurketan dauden jokalariaik izan ezik, gainontzeko kideek musukoa jantzita izan beharko dute neurketak irau bitartean.
- Neurketaren etenaldietan taldekide guztiek musukoa jantzi beharko dute.
- Neurketa amaitzearekin batera, kide guztiek musukoa jantzi beharko dute.

ALDAGELN FUNTZIONAMENDUA

- Partida amaierarako talde bakoitzak bina aldagela izango ditu. Aldi berean, gehienez, 5 lagun onartuko dira aldagela bakoitzaren barruan. Taldekideen artean txandak ezarri beharko dira. Honen arduradun taldeko talde teknikoa izango da. Norbait edo norbaitzuk aldagela kanpoan itxaroten geratzen badira, pertsonen arteko distantzia ziurtatu beharko dute.
- Partiduan zehar ordezkatu diren jokalariaik berehala aldatu beharko dira partidu amaierara itxaron gabe.
- Aldagelen erabilera partida bukatetik ezingo da 20 minutu baino gehiago luzatu. Hau da, partidua bukatzen denetik 20 minututara taldeetako kideek Eztatik kanpo egon beharko dute.
- Epailearentzat ere aldagela erabilgarri izango da aldatzeko eta akta egiteko. Inoiz ez dutxatzeko.

TEKNIKOENTZAKO ETA ORDEZKO JOKALARIANTZAKO GUNEA

- Teknikoentzako eta ordezko jokalarientzako aulkiak egongo dira. Aulki hauen arteko distantziak pertsonen arteko distantzia interpersoneala bermatzeko bestekoa izango da, eta aulkiak ezingo dira dauden lekutik mugitu.
- Teknikoek zein ordezko jokalariaik musukoa uneoro jantzita izan beharko dute eta, ordezko jokalarien kasuan, ezingo dira aulkitik mugitu berotzen hasteko eta kanpora irten diren baloien bila juteko ez bada.

MATERIALA

- Talde bakoitzak beharrezkoa duen materiala ekarri beharko du.
- AKEk ez du materialik utziko. Baloiak ezik.
- Neurketara URA etxetik beteta ekartzea gomendatzen da. Eztalan bete beharra izanez gero, AKEko arduradunen bati galdetu eta berorrek emango ditu jarraibide zehatzak.

KOMUNAK

- Komun bakarria egongo da erabilgarri.
- Komunean aldi berean pertsona bakarria onartuko da.
- Itxaron beharra egonez gero, pertsonen arteko distantzia gorde.
- Komunean musukoa erabiltzea ezinbestekoa izango da.
- Komuna erabilgarri egongo den arren, beharrezkoa denean soilik erabiltzea eskatzen da.

IKUSLEAK: Ez da inon ikuslerik egongo Eztalan. Soilik kanpotik taldeko jokalaria ekarri dituzten gurasoak, hauek izenabizen eta telefono zenbakia eman beharko dute sarreran AKEko arduradun bati. Gehienez 5 izango dira.

PARTIDAK SEGURTASUNEZ JOKATZEA ETA ARRISKUAK EKIDITEA GUZTION ERANTZUKIZUNA DA

AKE.ko ZUZENDARITZA